

ELKARRIZKETA: SEBERIANO AIASTUI, MISIOLARIA

# Arrate

2000.eko  
ekainaren 30a  
502. zenb.

Hurrengora  
arte  
San Joan



**SPEGIA:** KARMELE PEREZ • **EUREN IKUSPUNTUTIK:** SOLIDARIO GOSE GREBALARIAK  
**ERDIKO ORRIETAN:** SANJOANAK ARGAZKITAN • **KULTURA:** URRUZUNO SARIDUNAK



## Etorkizuna zure esku



### Ematen ditugun motak

- Natur eta Osasun-Zientziak.
- Giza eta Gizarte Zientziak.
- Teknologikoa.

### Bide irekiak

- Ikasle bakoitzari egokitutako Bideak ditugu.

### Hizkuntzak

- Ingelesa.
- Frantsesa.

### Modalitate eta Aukerakoetan eskaintza zabala

- Laborategi teknikak.
- Elektroteknia.
- Mekanika.
- Psikologia.
- Antropologia.
- Ekonomia eta enpresa antolaketa.
- Iharduera fisiko, aisialdi eta osasuna.
- Ordenagailu bidezko marrazketa eta diseinua



### Erdi Mailako Zikloak

- Ibilgailuen elektromekanika.
- Erizaintzako zaintza osagarriak.
- Soldadura eta Galdaragintza.
- Mekanizazioa.
- Kontsumorako ekipa elektronikoak.



### Goi Mailako Heziketa Zikloak

- Galdaketa eta Pulbimetalurgia bidezko produkzioa.

### Matrikula egiteko epea

MATRIKULA  
Batxilergoa      Uztailaren 3tik 10era  
Heziketa Zikloak      Uztailaren 3tik 7ra



# Tradizioa sortzaile beti

Urteko egunik luzeena-  
ren ondoren, giroa  
epel, bihotza bero eta  
kalea jendez gainezka, zain.  
Denok dragoiaren zain.  
Dragoia: ipuin, tradizio,  
iraganaren usain eta kolore.  
Baina, baita oraina eta  
errealitate bizia, tradizio  
gaurkotua, biziberritua.  
Horrela sentitu nuen San  
Joan bezperan, suaren,  
dantzarien, bandaren,  
txistuen eta txalapartaren haritik, atzo  
eta gaur bat eginik arrasatearren eta  
Arrasateren bihotzetan.

Egun horretan hamaika lekutan  
irakurri ahal izan nuen gau horren  
magiaz, suaren purifika-  
zio-indarraz, eguzki-  
lorearen esanahiaz eta  
eraginaz... kale-umeok  
batez ere idazkien eta  
ipuin bidez jaso  
ditzakegun ohitura eta  
sinesmenez azken batean.  
Kale-ume peto-petoon  
ikuspegitik, baserri-giroko



Karmele Perez

gizarte galdu baten irudia  
dakarren tradizioa dela  
pentsatu nuen hasieran,  
lurra, eguzkia eta ura  
gurtzen zirenekoa. Izan ere,  
zer lotura daukate kontu  
horiek guztiek gure gaurko  
bizimoduarekin? Bai,  
beharbada, baserri-giroan  
bizi direnen sinesmen eta  
ondare kulturalarekin.  
Baina, gurearekin?

Azken jai hauetan sentitu  
egin dut galdera horren erantzuna,  
ulertu egin dut zer esan nahi duen  
tradizio gaurkotuak. Iraganeko kontuak  
irakurri ditut han eta hemen, baina  
egungo interpretazioa, egungo garape-  
na, egungo soinuak entzun,  
ikusita eta sentitu ditut.  
Jendearen eztarrietatik,  
ahopeka, San Joan doinua  
entzuten nuen bitartean,  
pentsatu nuen atzoko eta  
gaurko jantzia daukala  
jaiak. Gogorarazten digu,  
bai, gaur atzo bezala,  
naturarekin dugun lotura

etenezina; baina, adierazten digu baita  
harremanak aldatuz doazela, ohiturak  
egokitzuz doazela eta mitoak eta erritoak  
garatuz doazela ere. Zaharretan  
oinarrirituz, dantza berriak, soinu  
berriak, tradizio berriak eraikitzea da  
erronka. Horretarako, Arrasatek  
gaitasun handia erakutsi du, ezin uka.  
Horrela izango ahal da beti.

Tradizioa ez baita gogortzen eta  
zahartzen utzi behar den zerbait. Ez da  
egonkorra, dinamikoa baino. Ez dago  
batzuen eskubidean, denon sinesmen,  
prestasun eta sormen-gaitasunean  
baino. Hizkuntzek bezala, garai  
berrietara egokitzen ikasi behar du,  
usain, kolore eta soinu berriz jantzi  
behar du, aldatzen utzi behar zaio.

Iraganak egin gaituena gara gaur, ez  
dut zalantzarik. Eta, iraganez iragan,  
etengabe gaurkotzen den tradizioak  
eraikitzen du gure izana, gure kultura,  
gure bizimodua, gure historia. Tradizio  
hori belaualdiz belaualdi ezagutara-  
ziz, garatuz, egokituz eta biziberrituz  
jarraitu ahal izango baitugu gu geu  
izaten, tradiziotik edanaz eta beti berri,  
beti sortzaile.

## Zaharretan oinarrirituz tradizio berriak eraikitzea da erronka

*“Gure nortasunetik, iraganetik etorkizunera zer eramateko  
gai garen frogatzean datza gure erronka, horren funtsa,  
guretzat, hizkuntza delarik”.*

Mikel Irizar

# 317

**Kilo marmitako egin  
zituzten astelehenean  
Uarkapen.**

120 kilo atun, 150 kilo pata-  
ta, 30 kilo tipula, 9 kilo  
piper berde, 3 kilo piper  
gorri eta 5 kilo olio erabili  
zituzten Jesus Artetxe,  
Mikel Azpillaga, Jose Luis  
Osa eta Jose Kruz Agirre  
ondarrutarrek.

### AURKIBIDEA

- Ikuspedia . . . . . 3
- Aurrez aurre . . . . . 12/13
- Tradizioa sortzaile beti
- Seberiano Aiastui
- Irakurlea idazle . . . . . 4
- Sanjoanek  
argazkitan . . . . . 15/22
- Inkesta . . . . . 5
- Kirolak jokoan . . . . . 23/24
- Asteko hitzorduak . . . . . 6/7
- Kulturaren  
txokoa . . . . . 25/26
- Euren ikuspuntutik . . . . . 8
- Zer gertatzen da?
- Astearren erreposoa . . . . . 9
- Ikusi eta entzun . . . . . 27
- Orain eta hemen . . . 10/11
- Azoka plaza . . . . . 28/29
- Foto zaharra . . . . . 30

**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS  
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate  
Komunikabideak) Oritara kalea, 31  
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89  
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net  
Arrasate Irratia: 943 71 17 31

**Leguntzalea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Marijo  
Deogracias. **Kazetariak:** Ubane Madera, Maider Osa,  
Leire Kortabarria eta Gorka Etxabe. **Publizitate:** Nerea  
Zallo, Arantzazu Lagunilla, Arantzazu Arroia. (Tel.:  
943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Sergio  
Azkarate. **Administrazioa:** Agurtzane Ginzarain, Ane  
Bereizbar (Tel.: 943 71 23 90). **Diseinua:** Maddi Tru-  
buelo. **Asteburuetako berriemaileak:** Lorea Agiriano  
**Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Karmele Perez, Neka-  
ne San Migel, Iker Ezpeleta eta Udaleko Gazteria Sa-  
lia. **Banaketaren ardura:** Naitara Odriozola-AED.  
(Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:**  
6.600. **Logo-Gordailua:** 112488. **ISSN:** 0214-4654. Fran-  
keo kontzertatua. **Inprimategia:** Geru Koop. E. (Zubi-  
llaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain har-  
tzen aldizkariaren adierazitako esanien eta iritzien  
erantzukizunik.

**ARRASATE PRESS** paper  
birziklatuan egiten da.

**Azala:** Marijo Deogracias.



**BEHARREZKO TELEFONOAK**

**Eritetxeak**

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00  
 Iguualatorioa ..... 943 71 26 91  
 Santa Agedako Ospitalea  
 (gizonak) ..... 943 79 39 00  
 (emakumeak) ..... 943 79 44 11  
 Buru osasunerako zentrua 943 79 90 11

**Larrialdiak**

SOS Deiak ..... 112  
 Gurutze Gorria ..... 943 76 55 76  
 DYA ..... 943 78 71 57

**Anbulatorioak**

Guardiako medikua ..... 943 46 11 11  
 Arrasate  
 • Txanda hartzeko: medikuntza  
 orokorra eta pediatria ..... 943 03 52 50  
 • Espezialitateak ..... 943 03 53 11  
 • Ikuskatzailea ..... 943 03 52 52  
 • Kanpoko kontsultak: ..... 943 03 53 11  
 Aretxabaleta ..... 943 79 74 58  
 Aramaio ..... 945 44 53 40

**Anbulantziak**

Gipuzkoako ambulanziazkiak 943 45 87 44

**Udaltzaingoa**

Oñati ..... 943 78 04 11  
 Bergara ..... 943 77 91 06  
 Arrasate ..... 943 79 14 39  
 Aretxabaleta ..... 943 79 10 52  
 Eskorialza ..... 943 71 44 07

**Ertzaintza**

Arrasate ..... 943 79 71 99

**Suhiltzaileak**

Udal taldea ..... 943 79 09 00  
 Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72  
 Zubillagako Eskualde-Parkea ..... 088

**Matxurak**

Urak (udal zerbitzua) ..... 943 79 09 00  
 Argindarra (Iberduero) ..... 943 12 01 62  
 Gasa ..... 900 40 05 23  
 ..... 943 79 78 44  
 ..... 943 79 76 78

**Garraioak**

Taxiak ..... 943 79 12 22  
 PESA ..... 902 10 12 10

**Hirugarren adinekoentzako zentruak**

Iturbide Egoitza ..... 943 79 72 11  
 Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

**Monterron liburutegia**

Monterron ..... 943 77 01 05

**Irratia**

Arrasate Irratia ..... 943 79 58 77

**JAUN/ANDRE AGURGA-  
RRIAK:**

**E**kainaren 3an "Nazioarte-ko II. Zazpinako Errugbi Topaketa"n jokatu ziren partidetan parte hartuz eta ikusle moduan, bertan egon ziren guztiei, Arrasate Errugbi Taldeko Zuzendaritza Batzordeak eskerrik beroenak igorri nahi dizkie.

Halaber, festa giroan murgilduz eta bi egunetan ospatu zen "garagardoaren jaian" parte hartu eta gurekin gozatu zenuten arrasatear guztioi, eskerrik asko.

Buruhauste anitz izan ditugun arren, zuek erakutsi eta emaniko laguntza baliogarria oso suertatu zaigu.

*Arrasateko Errugbi taldea*

**Gutunen araudia**

Arrasate Pressen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira, nahita ez:

- Egilearen izenez argitaratuko ditugu. Egilea talde bat denean, edo talde baten ordezkaria, talde izena onartuko da.
- Gehienez jota, 30 lerroko gutunak onartuko dira. Hor-tik gorakoa balitz, laburtzeko eskubidea izango du erre-dakzioak. Aurrez egilearekin harremanetan jartzen saiatu-ko gara.
- Anonimoak eta gaitzizen edo inisialez datozenak ez dira argitaratuko.
- Ez da lekurik gordeko. Erredakziora ailegatutako orde-nean kaleratuko dira gutun guztiak.
- Gutun iraingarririk ez da argitaratuko.
- Gutuna ekarri edo bidaltzen duenak berarekin harre-manetan jartzeko modua adierazi beharko du, egilea bera dela egiaztatzeko. Telefono zenbakia nahikoa da horretarako.

**GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK**

- Ostirala, 30**
  - Azkoaga, Iturriotz
- Larunbata, 1**
  - Korkuera, Musakola
- Igandea, 2**
  - Irizar, Erquin
- Astelehena, 3**
  - Amezua, Santa Marina
- Asteartea, 4**
  - Zabala, Zarugalde
- Asteazkena, 5**
  - Ruiz, Maalako Errabala
- Osteguna, 6**
  - Morales, San Andres

*Sili Sili*  
**Martxa eta estilo handiko arropa**  
 Iturriotz, 9 • ARRASATE  
 Tel.: 943 79 81 82

**M**  
**MEMESA**  
**Industria hornidurak**  
**Tel. 943 71 24 25**

**UGARAN**  
**jatetxea**  
 Garagartza auzoa  
 Tel.: 943 79 76 58  
 ARRASATE



# Tenporetan sinisten duzu?

Udan, iragarri dutenez, bero galanta egingo du



**Maria Poyatos Valle**  
(14 urte)  
Ikaslea

Bai. Nik, behintzat, sinisten dut.



**Iñaki Kortazar**  
(16 urte)  
Ikaslea

Asmakizunak direla uste dut; eguraldia berez irteten den zerbait da eta horrela asmatzea...



**Vanesa Leon Dominguez**  
(15 urte)  
Ikaslea

Bai, sinisten dut; eguraldia iragartzen dutela uste dut.



**Haritz Oianguren**  
(17 urte)  
Ikaslea

Ez dut horretan sinisten. Nire ustez, asmatutako kontuak dira.



**Mari Carmen Larzabal**  
(68 urte)  
Etxekoandrea

Bai. Batzuetan asmatzen dute eta beste batzuetan ez, baina sinistu, sinisten dut. Gainera, aurte) n asmatuko dutela uste dut.



**Rosa Gil**  
(38 urte)  
Langilea

Bai, nire ustez benetakoa ak dira tenporak; asmatzen dute.



**Haritz Gorroño**  
(22 urte)  
Ikaslea

Bai, asmatzen dutela uste dut. Sinisten dut.



**Jose Ramon Urzelai**  
(53 urte)  
Erretiratua

Bai. Nik baietz uste dut, asmatu daitekeela. Antzinako kontuak dira eta arrazoi apur bat behintzat izango dute.

## Focus TDdi

Injekzio zuzena  
**1.975.000 pta.**

Prever plana  
eta deskontuak barne

**MUGARRI**

943 79 07 44

## Etxebizitzak salgai Antzuolan

90m<sup>2</sup> erabilgarriak

**20.000.000 PTA**

Lehen mailako materialekin egina. Leku ezin hobea.

Informazioa eta salmenta: **KOROSTI INMOBILIARIA.**

Tel.: 943 73 05 25

*Lore*

• Lurrindegia • Kabina •  
• Fotodepilazioa •

Olarte kalea, 10 • Tel.: 943 79 52 50



30

ostirala

■ ZINEMA

*Ojos que te Acechan*, 19:00-21:30, Alai zineman.

1

larunbata

■ ZINEMA

*Soñé con Africa*, 17:00-19:30-22:00, Alai zineman.

2

igandea

■ ZINEMA

*Soñé con Africa*, 17:00-19:00-21:30, Alai zineman.

■ ARRASATE MUSIKALEN KONTZERTUA

Arrasate Musikaleko ikasle aramaiorrek kontzertua eskainiko dute Aramaioko Ibarako Elizan. 18:00.

3

astelehena

■ ZINEMA

*Soñé con Africa*, 19:00-21:30, Alai zineman.

■ KONTZERTUA ITURBIDEN

Arrasate Musikalek kontzertua emango du Iturbide Egoitzan. 16:45ean.

# SAN PEDROAK

## Eskoriatzan

**EGUBAKOITZA, 30**

- 11:30 Umeentzako jokoak, Intxaurtxuetan.
- 12:00 Herriko hildakoen aldeko meza.
- 12:30 Egur-lanketa motozerraz, plazan.
- 16:30 Mus Txapelketa, Gernika plazan.
- 17:00 Antzerkia, herriko plazan.
- 19:00 Haurren danborrada.
- 22:30 Pilota jaialdia: Zabala, Iñurrategi-Muruamendiaratz Jaio; Titin III.a, Lasa III.a - Etxaniz, Elkorro.
- 22:30 Rock jaialdia unibertsitateko apartokalekuan: *La Polla Records*, *Kaf-*

*ha* eta *Contrastes*.

- 23:00 Dantzaldia *Dindrotsekin*, plazan.
- 00:00 Zezen suzkoa, plaza inguruan.

**ZAPATUA, 1**

- 09:00 Herriko txistulariekin kalejira.
- 11:00 Iturengo joaldunen kalejira.
- 11:00 Trikitilariak, talogileak eta sagardoa, herriko plazan. Erakusketa: Alpagatariak eta Erremintariak.
- 13:00 Trikitilariekin poteoa.
- 14:30 Herri-bazkaria, herriko plazan.

- 18:00 *Akelarre* txaranga eta poteoa.
  - 20:00 Euskal preso eta errefuxiatuen aldeko kalejira.
  - 23:30 Dantzaldia *Etzakit* taldearekin
  - 00:00 Iribarko Ingurutxo dantza, plazan.
  - Ondoren:** Jai bukaerako traka.
  - 24:30 Dantzan jarraituko dugu *Etzakit* ekin.
- Egunean zehar haurrentzako parkea egongo da Gorosarri plazan (eguraldi txarra egin ez gero, frontoian).
- Ordutegia: 11:30-14:00 eta 17:00-20:30.



**ILE APAINDEGIA**  
Alfonso X jakintsua, 1 behea  
(Grupo San Juan)  
Tel.: 943 79 79 65



**Elizondo**  
kafetegia



Garagartza auzoa • ARRASATE • TEL.: 943 79 15 99



# 4

## asteartea

### ■ ZINEMA

*Soñe con Africa*, 19:00-21:30, Alai zineman.

# 6

## osteguna

### ■ AIRE ZABALEKO ZINEMA

Aire zabaleko zinema emanaldian, *American Pie* filma eskainiko da. Monterron Parkean, 22:30.

## SAN MARTINAK

### Aramaion

#### EGUBAKOITZA, 30

**19:00** Pregoia eta txupinazoa. Kartel lehiaketako sari banaketa.  
**19:30** Kalejira.  
**21:00** Herri-afaria.  
**22:30** San Martin Pilota Txapeketa.  
**00:30** Rock jaialdia.

#### ZAPATUA, 1

**11:00** Baserriko produktuen azoka.  
**13:00** Herri-kirolak, parkean.  
**16:00** Aretu futbol partidak, frontoian.  
**16:00** Rokodromoa eta tiro-lina.  
**19:30** *Txusma Kolektiboarekin*, Vojnerek Familixe antzerkia.  
**21:00** Presoen aldeko kontzentrazioa.  
**22:30** Pilota partidak.  
**00:30** Dantzaldia *Egan* taldearekin.

#### DOMEKA, 2

**10:00** Txistulariekin kalejira.  
**11:00** Dantza taldeen kalejira eta erraldoiak.  
**12:00** Meza santua. Ondoren, euskal dantzak. Mariano Errasti, seme kuttun.  
**16:00** Haur parkea, plazan.  
**17:00** Plater tiroketa.  
**18:00** Arrasate Musikal, elizan.  
**19:30** Bertsolariak.  
**23:00** Etxabe anaiak.

#### ASTELEHENA, 3

**12:00** Meza.  
**12:30** Umeentzako dantzaldia, plazan.  
**16:00** Tailerrak, plazan.  
**18:00** *Kiki, Moko, Koko eta Flash* pailazoak.  
**20:00** Kalejira.  
**22:00** Herri-afaria.  
**00:00** *Irailerako 6* taldea.

### ■ ITURRIPEKO ORDUTEGIA

Iturripeko Kiroldegiaren udako ordutegia honakoa izango da: uztailan, astelehenetik egubakoitzera, **17:00etatik 21:30era**, eta zapatuetan, **8:30etik 13:30era**; abuztuan itxita egongo da.

### ■ 1949KO KINTOAK

1949an jaiotakoek bilera ospatuko dute uztailaren 8an. Izen ematea, Lore edo Zabaleta lurrin dendetan egin behar da.

### ■ RIKARDO ARREGI IKERKUNTZA BEKA

Andoaingo Udalak eta EHUK Ricardo Arregi Kazetari Ikerkuntza Beka antolatu dute. Euskaldun eta unibertsitate tituluduna izan beharra dago, Kazetaritzan edo Historian. Dokumentazioa uztailaren 1etik 20ra aurkez daitezke. Argibideak: 946 01 23 56 telefonoan.

## PRAKTIKETAKO KONTRATUAK

Arrasateko Udalak, 2 urterako, lanpostu hauek bete nahi ditu:

- Antolaketa teknikaria
- Informatika laguntzailea
- Informatika monitorea
- Bideetako ingeniaria
- Saneamendu eta auzoetako teknikaria

Aurkezteko epea: 2000/07/03tik 2000/07/20ra arte, biak barne. Oinarriak: udaletxean jaso daitezke.



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Saila ■

## ALDI BATERAKO LAN POLTSAK

Arrasateko udalak lan poltsa hauek osatu nahi ditu:

- Arotzak
- Iturginak
- Galdaragile laguntzaileak

Aurkezteko epea: 2000/07/03tik 2000/07/20ra arte, biak barne. Oinarriak: udaletxean jaso daitezke.



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Saila ■



**USTEAK USTE**

**Xenofobia nor?**

**E**uskaldunok faxistak eta xenofoboak omen gara. Ikastolan ikasi dugunok horrelakoak gara. Horixe baieztatu berri du Espainiako Historia Akademiak. Eta gure ikastoletan irakasten duten historiak dauka horren errua. Ezin dugu gure herriaren historia ikasi, arrazistak eta xenofoboak izan barik. Ezin dugu ikasi, gure ikastoletan erakusten den historia Espainiako historiarekin zerikusirik ez duelako, ez delako benetan gertatutakoa.

Ibaizabal argitatearen liburuan, Errepublikaz berba egiten da. Hori ez da Espainiako historia, ala?

Nire aiton-amonei entzun izan diet behin baino gehiagotan errepublikaz berba egiten, bai eta frankoren garaian pasatu zituzten kalamitateetaz ere. Eta ez Espainiatik Euskal Herrira etorri zirenean bakarrik, baizik eta Espainian bizi izan zirenean ere. Eurek ez zuten ikastolan ikasi, baina gogoratzen dute bai garai hartan jasan behar izan zutena, eurek eta beste askok; eta badakite baita ere Euskal Herriak jasan behar izan zuena. Xenofobo eta arrazis-tengandik.

Marijo Deogracias



**Zer gertatzen da?**

\* Gose greban egondako solidarioak

**M**aiatzaren 31n presoen eskubideen aldeko defentsan, gose greba bati ekin genion. Eskubide hauek beraien legedian onartutako oinarrizko eskubideak besterik ez dira:

- Euskal presoak Euskal Herrira
- Zigorren 3/4ak bete dituztenak kalera
- Gaixotasun sendaezinak dituztenak etxera

Gure helburuetako bat, gose greba hau burutzen genuen bitartean erakunde politiko, sindikatu eta giza eragile ezberdinekin elkarrizketa zen, egoera azaltzeko eta bakoitzak bere neurrian, konpromisoak har zitzen. Beraz, hasiera-hasieratik kontaktua izateari ekin genion. Pasa ditugun egunetan, 27, poztasunez ikusi dugu, erakunde sindikatu eta herritar batzuek azaldu duten jarrera.

Zoritxarrez, beste batzuren jarrera zuria salatu beharrean gaude. Presoen eskubideen aldeko jarrera azaldu ondoren, erantzukizunak har-

terako orduan ezkutatu egiten dira, daukaten aurpegi bikoitza agerian utziz. Adibide garbiak EAJ eta ELA ditugu; presoek eskubideen aldeko jarrera garbia erakutsi dute, Batera plataforma sortuz eta ekimen ezberdinetan parte hartuz; dena oso polita, baina zer gertatzen da herri mailan? Gose grebalariorik hitz egitera deitu ditugunean beraiek hain garrantzitsutzat duten elkarrizketaren bidea ere ez dute hartu nahi izan. Gizartearen aurreko antzerki batean bezala, fikziozko paperen gonapean itzalduta dute hasierako sua. Sua diogu, bazirudielako

“  
Gizartearen aurreko antzerki batean bezala, fikziozko paperen gonapean itzalduta dute hasierako sua  
”

hasiera batean denak zeudela prest konpromisoak hartzeko eta lanari gogor ekiteko. Baina, presoek ez dute horrelako su faltsurik behar, beren oinarrizko eskubideak bete daitezela baizik. Horretarako, bakoitzak hartzen dituen konpromisoak bete behar ditu eta ez momentuko interes politikoen arabera presoek bizitzekin jolastu. Presoak ez dira txotxongiloak.

Eta PP eta PSOeri buruz zer esan? Partidu hauek (beste batzuen laguntzaz) egoera hau mantentzen dute gure herriaren erabakiari muzin eginez. Paradoxikoa benetan beraien jarrera, edozein gauzaren gainetik bizitzeko oinarrizko eskubidea aldarrikatzen duten hauek entzungor egiten baitiote presoek bizitzeko daukaten eskubideari, beraien oinarrizko eskubideei. Burutu duten azkenengo gose greban beraien bizitza arriskatu dute, benetan egoera larrietara iritsiz. Zer egin dute egoera larri honen aurrean? Ez al dute bizitza guztiek berdin balio?

Eskatzen diren oinarrizko eskubideak beraien legedian onartutakoak izaki, ez dugu ulertzen nola egon daitekeen oraindik aldarrikapen hauekin bat egiten ez duen partidu politiko eta erakunderik, ezta ere aldarrikapen hauekin jolasten duen jenderik ere.

**IGR DEKORAZIOA**

Zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak • PVCko leihoak • Aluminiozko leihoak • Eskailerak • Armairu enpotratuak...

**GREMIOEN KOORDINAZIOA**

Erakusketa eta biltegia:  
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE  
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20

**HIES BERRI**

**Tel.: 943 79 26 99**



astea bi hitzetan

■ **Taxien prezioen igoera**

Gipuzkoako Taxilarien Elkarteak proposatutakoari jarraituz, Arrasateko Udalak igo egin ditu taxien prezioak. Bandera jaitsiera 12 pezeta garestituko da, 369 pezetan geratuz. Kilometro bakoitza, berriz, 3 pezeta garestiagoa izango da, 115 pezeta, beraz. Egunez itxaroten egon beharreko ordua, 2.215 pezetan geratuko da eta gauekoa, 3.480 pezetan. Dena dela, orain arte, behintzat, Mondragoeko taxilariak ez diote proposatutakoari jaramonik egin eta beraiek ezarri izan dituzte prezioak.

■ **Solidarioak UGTn**

Mondragoeko presoekiko elkartasun taldeak protesta egin zuen pasa den eguaztean UGT sindikatuaren egoitzan. Sindikatuak ez zuen hitz egin nahi izan Arrasaten gose greban egon diren bi solidarioekin. Hori salatzeko egin zen protesta.

■ **Ganberrokeriak**

San Joanetan izan da jaiekin zerikusirik ez duen gertakizunik ere. Erdiguneko bi dendatako erakusleihoak apurtuta agertu dira jaien ondoren eta Otalora kaleko hainbat automobil lekueta-

tik mugitu zituzten domeka gauean.

■ **“Elcano” merkatuan**

Ikerlanek “Elcano” izeneko proiektu bat aurkeztu du. Internetek eskaintzen dituen abantailak aprobetxatuz, lan-tegietan dauden makinek dituzten arazoak modu bizkorrean konpontzeko aukera lantzen da egitasmo horretan.

Telemantenimendu sistema berri hau Ikerlan eta IDEKO gune teknologikoen egin dute eta Elgoibarreko Danok Bat enpresan jarriko da abian. Nazioarteko enpresek ere parte hartu dute.



■ **Bonbona leherketa**

Igande goizean, Eskualde Ospitale inguruan gas-bonbona batek eztanda egin zuen. Telefonikak han duen egoitzan izan zen leherketa, zehatz-mehatz. Hala ere, kristal batzuen apurketa izan ezik, ez zuen bestelako kalterik jasan.



Orain arte, errepi-deak, trenbideak eta aireportuak izan dira gizarte industrialeko azpiegiturarik garrantzitsuenak, baina etorkizunean ordenagailu eta komunikazio sistemak izango dira XXI. mendeko azpiegiturak eta hauek izango dira Informazioaren Gizartea deritzan horren oinarri nagusiak.

**AITOR OROBENGOA**

*Cuadernos de LKS*  
(2000ko ekaina)



**Parques  
y Jardines**

**Parke eta lorategien sorkuntza.**

**Lorzaintzako mantenimendua oro har.**

**Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.**



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



## Haur eskola udazkenerako

Mondragoeko udal haur eskola datorren ikasturtean abiatzea erabaki du udalbatzarrak. Hala ere, oraindik aurreneko pausoak besterik ez dira eman. Araudia eta baldintza ekonomiko-administratibo eta teknikoak onartu da, oraingoz. Hemendik aurrera, zerbitzu hau emateko proposamenak aurkeztu ditzakete enpresek udaletxean. Ondoren, adjudikatu egingo da eta segidan zabalduko da.

Datorren ikasturterako, bada, lanean egotea espero da. Hala ere, aipatutako betebeharrak egin arte, ezin izango da gehiago zehaztu; beraz, matrikulazioa eta bestelakoak oraindik erabakitzeke daude.

### LAIKOIA ETA ANITZA

Erabakita dagoena zera da, udal haur eskolaren funtzionamendua demokratikoa, lai-



Datorren ikasturterako lanean egotea espero da.

koa eta anitza izango dela; euskara erabiliko duela eta gainerako hezkuntza zentroekin koordinatuko dela.

Haurrak onartzeko orduan, berriz, matrikulatu diren eguna kontuan hartuko da; oso zorrotzak izango dira honekin. Behin mondragoetarren eskaerak asetu ondoren, bailarako

bestelako eskaerak aztertuko dira.

Hiru hilabetetik hiru urte bitarteko haurrentzako zerbitzua eskainiko du Mondragoeko udal haur eskolak. Orduetgia, berriz, goizeko 7:30etik arratsaldeko 18:00ak artekoa izan liteke, irailetik uztailera arte.

## Gose greba amaituta



27 egunez gose greba egin ondoren, astelehenean irten ziren bi solidarioak udaletxetik. 15 kilo gutxiagorekin, zorabioak, botagura eta nekea

igarri omen dituzte azken egunotan. Hala ere, pozik daude lortutakoarekin. Euren esanetan, berba egitera joan diren talde, sindikatu eta

alderdi politikoek konpromisoa hartzeko gai direla erakutsi diete. Arrasatetik elkartasun adierazpen asko jaso izana ere gaineratu dute.

## Udala eta Mondragon Unibertsitatea elkarlanean

Arrasateko Udalak 250 milioi pezeta emango dizkio Mondragon Unibertsitateari datozen hiru urteotan, GARAIA proiektuaren partaidetza moduan.

Izan ere, Eskola Politeknikoak ikasgela gabezia handia duela ikusi da, eta baita liburutegi berria behar duela ere. Era berean, Mondragon Unibertsitatearen plan estrategikoaren arabera, lehen eta bigarren zikloak emango dira laster Eskola Politeknikoan. Aurrez ikusten denez, ikasle kopurua 4.500ekoa izan daiteke. GARAIA proiektuak ekarriko dituen berrikuntzetako batzuk dira hauek.

Hau guztia kontuan hartuta, Iturripeko kiroledegia eta eskolako lantegien artean, ikasgelak eta liburutegi bat izango dituen eraikin berri baten beharra ikusi da. Horixe eraikitzeko hitzarmena onartu du udalbatzarrak.


### GOIER

Horrez gain, beste milioi bat pezeta emango dio udalak Eskola Politeknikoaren Goier proiektuari. Goi ikasketak erbestean egin behar dituzten ingeniariak laguntzeko emango da diru kopuru hori.

Goierrek 29 milioi pezetako aurrekontua du. Diru gehiena herri-erakundeetatik jasotzen du, baina baita Europa eta kooperatibetatik ere. Inguruko udaletatik, Mondragoekoa da laguntza ematen dion bakarra. Goier orain dela 28 urte sortu zen eta ia 500 ikaslek osatu dituzte ikasketak programa horri esker.



# Ura barra-barra



Asteleheneko euri zaparrada galantaren ondorioz, herriko hainbat gune urpean geratu ziren. San Isidro elizaren aurrealdean errepidea alderik alde hartu zuen putzu batek; suhiltzaileak eta guzti izan ziren Musakolan. Zarugalde, Olarte, Santamainan eta San Andresen ere izan zen arazorik. Herriko estolderia gehienak urak hartu zituen eta sarbidea oztopatu. Laubideko aparka-

leketara ere sartu zen ura. Uarkape pilotalekuko ezkerreko paretan gaineko leihoak zabalzabalik zeuden eta euria sartu zen. Kantxa urez bete zen eta partidak bertan behera gelditu ziren. Harmaila gaineran ere itoginak agertu ziren. Udal ordezkarien esanetan Uarkape oraindik bermean dago; kalterik agertu ezean, lanak egin dituen enpresari dagokio konpontzea.

# IFAM oroitzapenerako



IFAM lantegia bakarrik argazkitan ikusi ahal izango dugu laster.

Pasa den astean hesi batez inguratu zuten eta datorren astearte goizean botatzen hasiko dira, 50 urte baino gehiagoz Gipuzkoa Etorbidean egon den lantegia. Gutxi gorabehera, bi astetan zehar arituko dira lantegia

botatzen. Ondoren, beharrezko baimen guztiak eskutatu, eta herriko udalaren hirigintza egitasmoari jarraituz, etxebizitza berriak eraikitzen hasiko dira. 210 etxebizitza berri eraikiko dituzte, guztira, Legargainen. Construcciones Suquia enpresak egingo ditu aipatutako lan guztiak.

# Goiena eratu da



Joan den asteartean sinatu zituzten bailarako euskara elkarteko ordezkariek Goienaren estatutuak notario aurre-

an. Bilbora joan behar izan ziren horretarako, han dago eta euskaraz lan egiten duen notario bakarra.

# Serafini omenaldia

Erro enpresak antolatuta, Serafin Lorenzori omenaldia egin zitzaion astelehenean. Horren barruan, urdaiazpiko bat zozketatu zen: 122 zenbakidun txartelak irabazi zuen. Pilota partidak ere bazeuden antolatuta, baina euri erauntsiak bertan behera utziarazi zituen. Uztailen jokatzearabaki da. Txispas-Txikuri eta Langa-Vitoria elkarren aurka arituko dira. Bestalde, Ikutixo-Irauegi bikoteak Irazolaren



kontra jokatuko du. Datorren uztailaren 15a eta 25a bitartean jokatuko dira aipatutako bi partidak.

**DERMATOLOGIA KONTSULTA**  
 Concepción Tamayo Dk. Jesús Sanpedro Madina Dk.  
**AZALEKO GAIXOTASUNAK**  
 (Lagun-Aro, IQUIMESA-Adestas, Diputazioa, Ipresa, Sanitas, Asisa)  
**LASER**

- FOTODEPILAZIOA  
Emakumezko eta gizonezkoentzat. Ile normala eta hormona arazozen ondoriozkoa tratatzeko Medikatuak kontrolatua
- KOUPEROSIA, TELANGIEKTASIAK,...
- MANTXA MARROIAK  
Adinaren ondorioz eta eguzkiaren eraginez sortutakoak

Maalako Errabala, 23-2ªA • Tel.: 943 77 05 57 • ARRASATE  
 Atzeko Kalea, 6 behea • Tel.: 943 71 61 82 • ONATI

**PUB HAIZEA**

arrasate



## SEBERIANO AIASTUI (MISIOLARIA)

# “Hezkuntza ezinbesteko

Otala Zelaia izeneko base-  
rrian jaio zen Seberiano Aias-  
tui, duela 86 urte. 17 urte  
zituenean, Euskal Herritik  
kanpora joan zen, misiolari  
marianista moduan. Makina  
bat herrialde eta kultura eza-  
gutu ditu; tartean, Afrikan  
egona da 12 urtez. Orain,  
Argentinako Comandancia  
Frias izeneko herrian bizi da,  
1983az geroztik, Chaco Baso-  
an, “Bamerazina” deritzaion  
basoan. Noizean behin jaioterrira etortzen da hemengo  
parajeekin gozatzera. Horre-  
lako batean harrapatu dugu.

— Nolatan baso horretan?

— Ez nekien nora joan.  
Bidearen bila nindoan. Bi  
lagun etorri ziren behin han-  
dik Eskoriatzara, ni ikustera,  
eta haiek esan zidaten baze-  
goela Chacon, Argentinako  
goialdeko probintzia pobre  
batean, etxe berri bat, Coman-  
dancia Frias izeneko auzune-  
an. Haraxe joatea erabaki nuen.

Poliki-poliki barruraino sartuz  
joan nintzen.

50 kilometrora zegoen  
herri batera joaten hasi nin-  
tzen meza ematera, moja  
batzuekin. Konturatu nintzen  
han ez zegoela ez apaizik, ez  
mojarik ez katekistarik, ezta  
ezer ere. Pentsa, 280 kilo-  
metro inguruan ez zegoen  
parrokiarik. Beraz, hantxe  
geratu nintzen, inon baino  
premia handiagoa zegoelako.

— Zure adina kontuan  
hartuta, ez zinen beldurtu?

— Adina oztopoa da, bai-  
na hezurrek bere tokian jarrai-  
tuz gero, aurrera egin behar!

Nire ustez, behetik dator  
deia, ez goitik.

— Nolakoa da  
hura?

— Pobre da.  
Gainera, jendea  
sakabanatuta  
dago. Baso

etxeetan bizi dira; etxe bate-  
tik bestera, hainbat kilome-  
trotako distantzia dago. Begi-  
ra, ni 35 kilometro ibili izan  
naiz inor ikusi barik. Bideak

ere hala-moduzkoak dira, lurra-  
rekin egindakoak, han ez dago  
asfaltorik. Oinez, zaldiz, man-  
doz eta orain kamionetaz nabil,  
astean kilometro asko egin  
behar izaten ditudalako.

— Eta zu bizi zaren  
herria?

— Asko hobetu da  
hango egoera. Beste  
probintzia batetik bi  
apaiz etorri dira, eta  
baita mojak ere (hiru  
motatakoak). Sen-  
dagilea ere bertan  
bizi da orain hamar  
urte (lehen 155 kilo-  
metrora bizi zen);  
berak erabil-  
tzen du

“Orain dugun arazorik handiena urarena  
da. Euria ere egiten du, baina ez dago ur  
hori batzeko tokirik, osinak falta dira”



# ...a da gizakiarendako”

herriko teiladun etxe bakarra, badakizu, bestela ez litzateke hara bizitzera joango.

Orain 600 pertsona ditu herriak, auzo koskor bat besterik ez da, beraz. Hala ere, azken urteotan jende kopurua igo egin da.

Argindarra ere badugu, egunero eta egun osoan, gainera. Duela 13 urte, 12 ordurako jarri zuten, baina eskatu eta eskatu ibili ondoren, lortu dugu argindarra egunero izatea.

— Hala ere, oraindik badaogo eginbeharrik...

— Bai, jakina. Orain dugun arazorik handiena urarena da. Erreka txikietan badago, baina ez da ona, ez da edatekoa. Euria ere egiten du, baina ez dago ur hori batzeko tokirik, osinak falta dira.

— Zer egingo duzue?

— Ur-biltegiak egin behar dira. Proiektu bat ere badaukat: 450.000 litro ur hartzeko biltegia egin nahi dut. 34.000 dolar pasatxo behar ditugu horretarako. Guztira, 60 metro kuboko bost uraxka egitea nahi dugu, eta beste hiru 40koak. Ondoren, ur hori etxeetara

eraman beharra dago.

Eusko Jaurlaritzara joko dut, seguruenik, dirulaguntza eskatzera. Inguruan ere beste norbait prest balego dirua emateko, nik gustura hartuko nuke hara eramateko.

— Izan ere, orain berriro zoaz hara, ezta?

— Bai, Andramaritan joango naiz berriro. Hemen-go senide, lagunak eta parajetak bisitatzera etorri naiz.

Hango eta hemengo parajeek, esaterako, ez dute baterer zerikusirik. Hura lau-laua da, eta dauden baso sakonek

ez dute ia ezer ikusten uzten. Faltan ditut, bai, hemengo paisaiak.

— Hainbeste urtean munduan zehar, ikusi izan duzunik zer nabarmenduko zenuke?

— Nahiz eta hainbeste gauza negargarri ikusi, gizakia gorantz dihoala uste dut. Hezkuntza ezinbestekoa da horretarako, gizakiaren garapenerako. Hemen, Euskal Herrian, lehen ez geneukan horrelako askorik eta orain, bai. Han ere ezartzea komeni da. ■

**ART III**  
**%30**  
**beherapenak**

Zarugalde plaza, 14 • ARRASATE • Tel.: 943 79 49 72

ART III, BEST, SENDRA, SNIPE %10EKO BEHERAPENA



# San Joanetan GOITB eta Arrasate Irratian lehian

Loramendi kirolak en eskutik sari zoragarriak jaso dituzte ondorengoek:

- ASIER ARRIETA (BERGARA)
- ANARTZ AGIRRE (BERGARA)
- ESPE LIZARRALDE (ARRASATE)
- IGOR FERNANDEZ (ARRASATE)
- IRAIA ELORZA (ARRASATE)




Mila esker jaietako lehiakiderik ausartenei:

Larraitz Trojaola, Lierni Axpe, Karmele Jparragirre eta Joana Lasa.

Baita ere magazina aurrera ateratzen lagundu diguzuenoi: Ehune, Gil Galan, Jru Zangitu eta Gili gili.

# DANTZAIZU!



Goizeko  
11etatik 12etara

Alazne Ostolaza,  
Gaizka Vitoria eta  
Leire Kortabariaren eskutik

DENTU  
943 7117 31

arrasate  
irratia   
  
FM 107.7



# Aupa San Joan!



Suaren bueltan dantzan

**IKASTARO TRINKOAK**

**ETA ERREKUPERAZIO-IKASTAROAK**

**UDA HONETARAKO**

**bai&by MULTIMEDIA-SISTEMA**

- 9.00etatik 21.00etara etengabeko ordutegia
- Mintzapraktikako eskolekin
- Ikasteko ordu-mugarik gabe
- 18 urtetik gorakoentzat

*ingelese,  
frantsesa eta  
alemana*

**2 ORDUKO IKASTARO  
TRINKOAK TALDEETAN**

- Goiz eta arratsaldeko ordutegia
- Haurrak, gazteak eta helduak

**CIM**  
HIZKUNTZAK-IDIOMAS

**bai&by**

Arrasate-Mondragon Avda. Alava, 4 • Tel.: 943 712055  
Donostia-San Sebastian Zubieta, 26 • Tel.: 943 433102

Oñati Olakua, 14 • Tel.: 943 716000  
Vitoria-Gasteiz Florida, 8A • Tel.: 945 150155



23  
egubakoitza

AUPA MUTILAK!

Koadrilleta-  
ko 35 gaztek  
altxatu zuten  
makala, bosga-  
rrean.



Beste behin ere udaletxe-  
tik parrokiara joan eta  
itzuli egin zen San Joan.  
Haritz Azkarraga izan zen  
banderaduna San Joanen  
ibilaldian, zinegotzi  
gazteena izateagatik.

J A N T Z I D E N D A

# LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



ETXE APAINKETA





Jende ugari atera zen kalera dantzariak, erraldoiak, trikitilariak, txistulariak eta Arrasateko Banda ikustera; Errementari dantza ikustera, alegia.

**SUA, SUA!**

Aurten arazorik barik piztu zuen sua dragoiak.



**ARRASATEKO**

**UDAL**

**EUSKALTEGIA**

# EGA

azterketa prestatzeko ikastaro trinkoa

- **Iraupena:** irailaren 4tik 29ra.
- **Ordutegia:** 08:00-13:00.
- **Matrikula epea:** Uztailaren 3tik 20ra.
- **Prezioa:** Matrikula: 14.000 pta.  
Materiala: 2.500 pta.

*Plaza mugatuak*

Armazuri plaza, 2 (Eskola Politeknikoaren ondoan)  
ARRASATE


Tel.: 943 79 70 77 edo 943 79 77 88

Faxa: 943 79 91 43

euskaltegi@arrasate-mondragon.net



## Emakumeentzako "Makina erreminta eta doikuntza ikastaroa"



Beste lan irtenbide bat: emakumeak orain lan-jantziarekin.

**Makina erreminta eta doikuntzako oinarrizko tekniketari emakume talde bat prestatuko da, metalgintza arloan lanpostu bat lortzeko.**

## Jantzi buzoa zuk ere

- **Norentzat:** Emakume langabeentzat.
- **Ordu kopurua:** 400 orduko ikastaroa.
- **Ordutegia:** Astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 14:00etatik 17:30era.
- **Noiz:** 2000ko irailaren 19tik martxoaren 23ra arte, asteazkenero.

**Izena emateko epea: 2000ko uztailaren 21a arte, Arrasateko Udalaren Enplegu Zerbitzuan. Tel.: 943 79 09 00.**

**Antolatzailea:** Enplegu Zerbitzua  
**Laguntzailea:** Emakume Saila



Europako  
Gizarte  
Funtza



ARRASATEKO UDALA

Emakume Saila ■  
Enplegu Zerbitzua ■

## PARA PAN! PARA PAN!



## ZORIONAK BIKOTE!



Paulo Garai eta Joxe Egidazu "Kasino" omendu zituen SUDC elkarteak.

Badira 18 urte SUDCeko banderadun hau, Eva, danborradan ateratzen ari dela.







JAI ZORIONTSUAK!

Erraldoi eta  
kilikien  
konpartsak eta  
Bandaren  
kalejirak jai  
zoriontsuak opa  
zizkieten haur  
eta nagusiei.

24  
zapatua



### NAGUSIEI OMENALDIA

80 urtetik gorakoek omenaldia jaso zuten. Argazkikoak Candido Moraleja eta Isabel Zabarte dira, Arrasateko nagusienak.

### ZALDIBARRETIK MONTERRONERA



Arrasate Musikaleko  
Bandak kontzertua

eskaini zuen Monterron  
Parkean, baina aurretik,

Zaldibarretik irten eta  
kalerik kale ibili zen.

**CE**

**ERRASTI KRISTALDEGIA**

**Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
osagaiak**

Olarte kalea, 47 beheha Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25



**Edertu**

Ile apaindegia • Solariuma

*Eskaientza berezia:*  
solariumeko 10 saio 6.500 pta.

San Andres auzoa • Tel.: 943 79 04 28  
**ARRASATE**





## RETEGI II.A UARKAPEN

Ez, ez zuen irabazi, baina ikuskizun bikaina eskaini zuen Julian Retegi II.ak Uarkapen. Jendez gainezka egon zen pilotalekua.



## ROCKA NAGUSI

## DRAGOI JANEAN JENDEA ASETU EZINDA

Arrakastatsua izan zen benetan dragoi jana. Txartel guztiak saltzeaz gain (500), badago afarira joan ezinda geratu zenik ere. Datorren urtean "jantoki" handiago bat aukeratu beharko dute AEDkoek.



Rock doinu indartsuak nagusi Monterron parkean, *Kañeria 13, Eraso!, Selektah Kolektiboa, The Hot Dogs* eta *Ekon* taldeen eskutik.



# Danona

KARROZERIAK

**Konponketak, txapa eta pintura**

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06

# ARAOTZ Merenderua

Ingurune zoragarrian,  
lagun artean  
ondo pasatzeko aukera

Araotz auzoa, 2 • OÑATI  
Tel.: 943 78 35 26



ARAOTZAZU  
OÑATI



## ASPALDIKO PARTEZ




Hamahiru urte ondoren, hementxe izan genituen berriro fanfareak. Herriko plazan ekitaldia eta kale-rik kaleko animazioa eskaini zituzten sei taldek.

25  
domeka



## “PRISCILA” MONTEIRONEN




## ARRASATE VS. BERGARA!

Bertso-trama edo antzezlanaren eskaini zuten AEDko bertso eskolako-ek. Titulua: “Arrasatearrak eta bergararrak borrokan”.



## EGUZKILARU I.A ETA II.A



Eguzkilaru etorri zen Arrasateko umeen festa eguna argitzera, eta, ezuste bezala, bere anaia-txoa ere ekarri zuen.

Pasaiako Tirri Tarra fanfarearen ikuskizunak lagun ugari erakarri zituen. Drag-queenak protagonista dituen Priscila esketxa da talde horren ezagunenatariko bat.



26  
astelehena

## HAUR ANTZERKIA



Haurren egun handia domeka izan arren, astelehenean ere izan zuten eurentzat antolatutako ekitaldirik. Petrikiloak taldeak haur antzerkia eskaini zuen, plazan.

## MARMITAKOA GUZTIONTZAT!



Horixe izan baitzen herri-bazkariko platera. Arrasatear asko joan ziren ondarrutarrek egindako atuna dastatzera Uarkape-

ra. Ondoren, musika saioa izan zuten, trikitilarien eskutik. 300 lagun gehiago elkartu zen herri bazkarian.

## EURIARI AURRE EGINEZ

Euri zaparrada handia bota zuen arren, Lore Gazteak taldeko dantzariak formal-formal aritu ziren herriko plazan, jaiak agurtzen.



**TXIRRITA**  
Taberna

Garagardo ona  
Giro hobea

Gesalibar auzoa  
Tel.: 943 79 10 35



**ERAIKUNTZAK ETA INDUSKETAK**

Basabe Industrialdea 4, EQ- 11 • ARETXABAleta  
Tel/fax. 943 79 01 51 • Mugikorra (908) 77 28 67 • Partikularra 943 79 74 26



## Arrasatearrak bigarren izan ziren

Azkenean, lau barik, hiru izan ziren Sanjoanetako Xake Txapelketan. Bilboko Rey Ardid izan zen txapelduna. Talde hau Euskal Herriko taldeakoko txapelduna da. Bilbotarrek 54 puntu lortu zituzten. Bigarren sailkatu ziren San Andres Xake Taldekoak, 33 punturakin.

Bilbotarrek euren talderik onena ekarri zuten eta arazorik barik irabazi zuten txapelketa.

Scheveningen sisteman jokatu zen, bi itzulitara eta xakelari bakoitzak 16 partida azkar jokatu zituen. Hiru ordu eta erdiz luzatu zen txapelketa eta 96 partida jokatu ziren.

Arrasateko taldea Josu Tornayk, Txema Hernandok, Martin Arriaranek eta Roberto Villarrek osatu zuten.



Hiru ordu eta erdian 96 partida jokatu ziren.

Banakako sailkapenean, lehenengo jokalaria Bilboko Rey Ardie taldeko Carlos Varas txiletarra izan zen.

Mondragoeko jokalaria onena, berriz, Josu Tornay izan zen; bera, sailkapen orokorrean, bosgarren izan zen.

## Kirolariak Eibarrera

Arrasate Kirolak Atletiko taldeko kideak Anoetan izan ziren asteazkenean, txapelketetan parte hartzeko gutxieneko markak lortzeko asmatan. 100 m.tan Unai Sarabia (11"29), Lorenzo Avila (11"49) eta Martin Davila (11"65) izan ziren. Kadetetan Jurdana Ayalak, 100 m.ak, 14"10ean egin zituen. Disko jaurtiketan Oskar Gavilanek 2 kiloko diskoa 33'60 m.ko distantzira jaurtiki zuen eta pertika jauzian Jonathan Perezek 4 m.ko jauzia egin zuen.

Horrela bada, larunbatean Eibarren lehiatuko dira juniorrak eta han egongo dira Unai Sarabia (100 m), Oskar Gavilan (dsko jaurtiketa) eta Jonathan Perez (pertika jauzia).

## Debarroko golf txapelketa arrakastatsua

Ia 50 jokalarik hartu zuen parte Debarroko I. Golf Txapelketan. Gasteizko Larrabeako golf zelaian jokatu zen, astelehenean, eta 41 gizonetako eta 9 emakumek hartu zuten parte. Jokoa ere hiru mailatan jokatu zen. Izan ere, golf jokalarik bakoitzak bere handicap-a dauka, bakoitzaren jokoaren araberakoa.

Horrela, bada, emakumez-kotan Pilar Ortiz de Zarate izan zen irabazlea; Gasteizen bizi den arrasatearra da Pilar. Beste



Debagoieneko golf jokalarik asko da bazkide Larrabeen.

mailatan, Marce Gonzalez arrasatearra eta Jesus Katania atxabaltarra izan ziren onenak.

Eguraldia oso ona izan zen eta zelaia ere ezin hobeto zegoen. Horri esker, ia jokalarik gehienek hobetu zituzten euren markak.

Parte hartzaileen artean, Aretxabaleta, Arrasate, Oñati eta Bergarakoak izan ziren nagusi. Hala ere, Gasteiz eta Donostian bizi direnek ere jokatu zuten Larrabeako txapelketa.

**M**  
Altzariak  
Diseinua  
Apainketa  
**ARENAZA**

Bizkai, 1 • ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 08 07

**U N Z U E T A**

J A T E T X E A

- Eguneko menua
- Karta
- Espezialitatea: Txuleta parrilan

Zabola auzoa. ARAMAIO • Tel.: 945 44 50 95

**S. CARRASCAL S.L.**

**Guk egindakoak:**

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

**Fabrikari erakusketa**

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a  
Tel/Faxa: 943 79 01 82



# Udako kirol eskaintza zabala dago aurten ere

AUKEAK, urtero bezala, prest dauka udako kirol eskaintza. Gainera, hamar kirol egiteko aukera dago. Lehenengo txanda asteazkenean zen hastekoa, baina ikastaroetarako jende gutxi eman du izena; hori dela eta, bigarren txandan hasiko dira ikastaro guztiak. Uztailaren 10ean izango da eta izen ematea uztailaren 7a arte egongo da zabalik.

Aerobica, arku tiroketa, eskalada, golfa, mendi bizikleta, natur jarduerak, patinajea, esku pilota, squash eta tenisa dira eskaintzak. Herrian hauetako kirolen bat egiten

duen talderik dagoenetan, eurek izango dira begiraleak; bestelakoetan, AUKEAK jarriko ditu irakasleak.

Ikastaro guztiak 10 ordukoak izango dira eta bi astez luzatuko dira. Musokolako kiroldegian, San Viatorren, Uarkapeko pilotalekuan eta inguruko mendiaren izango dira ikastaroak eta zortzi urte-tik gorako pertsonentzat eskainiko dira, hainbat taldetan:

- **Aerobica:** 8-16 urte eta 17-20 urte.
- **Arku tiroketa:** 8-16 urte, 17-29 urte eta 30etik gora.
- **Eskalada:** 8-16 urte, 17-29



- **Golfa:** 8-16 urte, 17-29 eta 30etik gora.
- **Mendi biziketa:** 8-16 urte.
- **Natur jarduerak:** 8-16 urte.
- **Patinajea:** 8-16 urte, 17-29 eta 30etik gora.
- **Pilota:** 8-16 urte.
- **Squasha:** 8-16 urte, 17-29 eta 30etik gora.
- **Tenisa:** 8-16 urte, 17-29 eta 30etik gora.

## IZEN EMATEA

Izen ematea uztailaren 10era arte egongo da zabalik eta 1.000 eta 2.000 pezeta bitartean kostako da.

## Arku tiroketan, azpitxapeldunak

Arrasateko "SP.10 Arku Tira-tzaileak" Sanjoanetan jokatu zen txapelketan azpitxapeldun izan ziren. Durango, Portugalete eta Deustuaren aurka aritu ziren. 24 kirolarik jokatu zuten, seina talde bakoitzean. Mondragoetarrek 39 puntu batu zituzten; durangarrek, 44.

Oxel Urrutia, Alberto Errasti, Mikel Lasa eta Fernando Kasatorre aritu ziren, A mailan; Marino Aldea, B mailan eta Mikel Palacin, C mailan.

Mailak arkuaren arabera banatzen dira eta A mailako arkuaren omen da sinpleena. Antolatzaileek adierazi diguten, helburua "arku tiroa bultzatzea da. Eliteko kirola da hau, baina arku ezberdinak daude eta ez dago sekulako



San Viatorren ostegunero aritzen dira arku tiroketan.

arkua izan beharrik horretan aritzeko. Ikuskizuna bultzatzen dugu". Horregatik, Sanjoanetako txapelketan, diana bat erabili beharrean sagarrak, ping-pong pilotak eta bestelakoak erabili zituzten.

Gustura gelditu ziren, txapelketan lortutakoarekin eta jende asko elkartu zelako Zal-dibarren txapelketa ikusteko.

Larunbatean jokatu zuten txapelketa, liga bateko kanporaketa zen. Hurrengo uztailaren 22an jokatu dute Zor-notzan. Aurretik beste txapel-

keta bat jokatu dute: uztailaren 9an Durangaldeko mendiaren. 3 kilometroko ibilbide batean arituko dira aurkitzen dituzten probak egiten. Gomazko animaliak jartzen dira ibilbidean eta ehizatzen arituko balira bezala, hauen kontra jaurti beharko dituzte geziak.

## ENTRENAMENDUAK

Orain dela urtebete sortu zen herrian arku taldea. 20 bat lagun elkartzen dira kirol horren inguruan. Uztailaren 10ean entrenatzen segituko dute: San Viatorren, ostegunero, 19:00etatik 21:00etara. Interesik izanez gero, kirol horretan aritzeko, bertara joan zaitzekete edo 639 26 63 40ra deitu.

**EGUZKIGRAF**  
inprimategia

Industrialdea E-04  
Telefonoa: 791844  
Faxa: 792941

ARETXABALETA

**MARKO-JARTZEAK**  
**ALDEDI**

Biteri, 8 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84




## Bad f-Linek hirugarren diskoa plazaratu du

*Bad f-Line* talde arrasatearrak bere hirugarren diskoa ateratu du. Lehen aurkezpen kontzertua Tarragonako El Vendrell herriko jaietan izan zen, ekainaren 23an, eta bigarren bat ere eskainiko dute, uztailaren 6an, Madrilgo La Peineta estadioan.

### KOLABORAZIOAK

Aurreko diskoa bezala, honako hau ere *Soziedad Alkoholika* taldeko Jimmy J-k ekoiztu du, eta *Desobediencia* diskoetxe madrildarrak argitaratu du. Berrikuntza batzuk ere badakartza hirugarren disko




honek: *Dr. Deseoko* Francisen eta *Ale Hopeko* Rubenen kolaborazioak agertzen dira,

eta baita *El Desvan del Macho* ren “40 días” kantuaren bertsiotekoa ere.

## Aire zabaleko zinema

Udako giro goxoa aprobetxatuz, Kultura Sailak aire zabaleko zinema emanaldiak antolatatu ditu, Amaia Antzokian izaten diren zine-klub saioen ordez. Eguenero izango da, 22:30ean; sarrerak 450 pezetan salduko dira, 400, Gazte Txartelarekin. Umerezko filmak dira: “American Pie”, “Algo pasa con Mary” eta “Atilano Presidente”. Hala ere, datorren astean oso bestelako film bat eskainiko da, Oscar bat irabazi duen “Todo sobre mi Madre”, Pedro Almodovarrena.

## Ehunez egindako artelanak Gure-Lekun



Otalora kaleko Gure-Leku tabernan erakusketa bitxi bat ikus dezakegu: Lali Marimon artista bilbotarraren “Creaciones Plásticas Textiles”, 15 lanez osatutako erakusgaia. Ehunez egindako artelanak dira, eta erosi ere egin daitezke.

### HIRU GARAI

Hiru taldetan banatzen dira Gure-Lekun esekita dauden lanak. Tapizak izeneko multzoan, paisaiak dira nagusi, eta artilea, kotoia edo zeta erabil-

tzen du Lali Marimonek. Bigarrenetan, Haur-Marrazkiekin egindako tapizetan, kotoia baino ez da erabiltzen, eta umeek egindako marrazkiak kopiatzen dira. Eta azkenengoz, Koadroak izeneko taldea hariekin egiten den artegintzaren alegoria da.

Gure-Lekuko arduradunek erakusketak eskaintzen jarraitu nahi dute, edozein lekuko artistek euren lana ezagutzera eman eta saltzeko gune bat izan dezaten.

## Sexualitatearen inguruko antzerkia lamain



Kontzezino kaleko Iamai kafetegiak zuzeneko emanaldiei ostatu ematen jarraitzen du. Uztailaren 7an, 22:30ean, *La Patro Teatro* talde burgostarrak “Lección de Orgasmo II: Buscando el Clitoris Desesperadamente” umerezko antzezlan eskainiko du.

Ekainaren hasieran, talde berberak antzezlan horren lehen zatia eskaini zuen lamain. Protagonista bera da, Concha izeneko sexolo-

goa, Eva Lopez aktoreak egiten duen papera. Aurrekoan bezala, orain ere Conchak jendearen sexu arazoekin arduratuta segitzen du. Oraingotan, gizonen %90ak klitoris non dagoen ez dakiela esaten duen estatistika bat irakurrita, anatomia ikasgaia ematea erabakitzen du Conchak. Azken batean, umorez betetako antzezlan, eta hori bai, antzerki taldekoek aita, anaia, senargia, senarra... eramatea gomendatzen dute.



IRAITZ AGIRRE ETA OIHAN ZUBIZARRETA (URRUZUNO LEHIAKETAN SARITUAK)

# “Sariek aurrera jarraitzeko animoak ematen dituzte”

Iraitz eta Oihan 16 eta 14 urteko idazle gazteak ditugu.

Ezin hobeto sartu dira literatura munduan: Iraitzek hirugarren urtez, eta Oihanek aurrenekoz, Urruzuno literatura lehiaketa ospetsuan sarituak izan dira.

— Zertaz ziharduten sarituak izan diren lanek?

— IRAITZ: Prosan, A mailako bi sari irabazi ditut. Bi ipuinok arazoak dituzten jendeaz dihardute. Batean, umea galtzen duen ama bat da protagonista; bestean, bere laguna hiltzen duen neska bat. Nire ipuinetan beti dago gai tristeren bat: heriotzak, erokeria...


— OIHAN: Nik poesia saria irabazi dut. Poesia idazten dudan lehen aldia zen, eta ez nuen espero irabazterik. Espetxean dagoen mutil baten gogoetak lantzen ditut: bere neska galtzearen mina, hango sufrimendua... Nik ere nahigabea eta sufrimendua lantzen ditut. Nire idazlanek bukaera garratzak izaten dituzte, nahiz eta maitasuna ere agertzen den.

— Zergatik gai tristeak?

— O.: Niri askoz errazagoa egiten zait. Askoz gehiago inspiratzen naute kontu horiek. Amak esaten dit ea zergatik ez ditudan gauza alaiak kontatzen, baina oso zaila egiten zait.

— I.: Bai. Gainera, zure animo egoerarekin oso lotua dago. Nik, adibidez, malenkoniatsu nagoenean idazten dut.

— Idazle ona izateko irakurle ona izan beharra dago?



— I.: Komeni da, irakurri izanak erraztasuna ematen dizulako. Bai, ondo idazteko, lehenengo irakurtzea gustatu behar zaizu. Nik neuk ez dut idazle eredu bakar bat, baina Otamendi, Sarrionandia... dira nire idazle gogokoenetarikoz batzuk.

— Sariek zenbaterainoko garrantzia dute?

— Biek: Oso handia. Sariei inportantzia kentzea modan dagoen arren, eskertu egiten dituzu. Zure lanari onespren bat da, balorazioa, eta animoak ematen dizute aurrera jarraitzeko. Motibatu egiten zaituzte.

— Motibazio horrek idaztetik bizitzera eramango zaituztete?

— Biek: Polita izango litzateke,

baina oso zaila da. Gainera, neurri handi batean idaztea inspirazio kontua da: momentu jakin batzuetan etortzen zaizu, eta kitto.

— O.: Bai, ezin da behartu. Nire kasuan, poesia idazten dudan lehenengo aldia izan da.

— Familiak eta lagunak zer edo zer esango dizute...

— I.: Oso pozik daude, eta dagoeneko idazle naizela esaten diote jendeari. Lagunek, aldiz, txantxetako kontu bat bezala hartzen dute: hiru urtez irabazita, tongoa dagoela-eta esaten didate.

— O.: Niri ere berdin gertatzen zait. Lagunek taldeko poeta naizela esaten didate.

I.: “Gai tristeek gehiago inspiratzen dute alaiak baino”

O.: “Nik ere nahigabea eta sufrimendua lantzen ditut”



# Jaiak, ferixak eta enparauak

**Jaiak**, astelehena, 21:30

“San Joan eta San Pedro, astero balego!”, dio esaera zaharrak. Astero ez, baina behin San Joanak pasatuta, asteburu honetan ditugu San Pedroak Eskoriatzan eta Zubillagan. Baina, ez dira jai bakarrak inguru honetan, Elgetan Ferixa Nausikoak ospatu baitira, Aramaion San Martinak eta Bergaran San Martzialak.

Bergarako Mendekoste jaietan egin zuen bezala, Goiena Telebistak programa berezia egingo du Eskoriatza, Elgeta, Aramaio eta Bergarako jaien gainean, tokian tokiko aurkezleak izango dituena.

Jaietako ekitaldirik esanguratsuenak eta kaleko giroa jasoko dira. Danborradak esangura berezia izango du. Izan ere, Eskoriatzakoak 25 urte beteko ditu aurten. Elgetan, berriz, aurten egingo da lehen aldiz, urte dezente egin barik pasatu ostean.

Aramaion eskularen azokak eta San Martzialetak erromeriak ere izango dute lekurik.



Jairik jai ibiltzeko gogorik edo dirurik ez duzuenok, hementxe izango duzue parada ona festa giroa jasotzeko.



## Udaroa irratian

Udan sartuaz bat, Arrasate Irratiak aurpegiz aldatzen du urtero. Aurten ere, San Joanekin batera, joan egin dira laguntzaile finek egindako irratsaioak. Irratiko guztien partetik, eskerrik beroenak laguntzaile mordo horri, egin duten lan onagatik. Eskerrik asko.

Abuztua bitartean, goizak zuzenean bizi izango ditugu. Goizeko 9:00etan, albisteen ordua izango da, Alazne Ostolazaren eskutik.

Ondoren, “Goizoro” magazinean, elkarrizketa eta kontu ugari izango ditugu, 11:00ak bitartean. Betiko moduan, Aitziber Aranburuzabalak aurkeztu eta zuzenduko du saio hau.

Ordu horretan, 11:00etan, “Dantzaizu” irratsaioa. Alaznerekin batera, Gaizka Vitoria eta Leire Kortabarria ari tuko dira. Abesti kutunen bat izanez gero, deitu eta eskatu, 943 71 17 31 telefonora deituz.

Eta bazkalordu bitartean, “Zu be bai” saioa izango dugu, Maier Urangarekin.

Arratsaldeetan errepikatu egingo dira, egunero, goizeko saioak, 14:30ean hasita.



## Irabazlea, pozik

Arkaitz Masijok irabazi zuen aurtengo denboraldiko Goienasport saioko azkenengo saria.

Arrasate Kirolak etxeak babestutako azkenengo lehiaketa izan zen ekainaren 19koa.

Arkaitzek bizkar zorroa, praka motzak eta nikia eraman zituen etxera.

Irabazlea, noski, pozik agertu zen. Bazuen motiborik, baina bere anaia eta amaren laguntza ere izan zuela kontatu zigun irabazleak.



**IBABE  
GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

**BITTORI  
ERRETEGIA**

*Eguneko menua • Kartako menua*

**Espezialitateak: legatz kokotxak eta txuletak**

Araba Etorbidea, 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82



## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

• Etxea salgai San Andresen. 3 logela, egongela, sukialdea. Tel.: 943 79 84 08. Gaeuz.

• Hiru logela, egongela, soto handia eta berogailua duen etxe berriztua salgai. Tel.: 943 79 57 88 (20:00etatik aurrera).

• Uriburu kalean pisua salgai. 70 m<sup>2</sup>, beriztua. Tel.: 609 43 20 21 (15:30-17:00 deitu).

• 45 m<sup>2</sup>ko etxea salgai, Arrasate erdialdean. Berrizteko dago. Tel.: 943 79 81 25 (gaeuz).

### 2. Erosi

• Etxea erosi nahiko nuke erdialdean. Tel.: 646 41 01 15.

• Pisua erosiko nuke San Andres aldean. Igogailua, hiru logela, berogailua eta berriztua izan behar du. Ahal bada, bi bainugelarekin. Tel.: 943 77 16 45 (goizez edo 22:30etik aurrera).

### 3. Errentan emateko

• Etxea alokagai Torrevieja erdialdean. Igerilekuarekin. Uztaila, abuzua eta iraila. Tel.: 943 79 63 56.

• Zarautzen logelak alokagai. Etxebizitza lasaia, eguzkitsua eta erdialdean kokatuta dagoena. Tel.: 630 71 35 83.

• Bi logela eta egongela-jantokia duen apartamentua alokatzen da Torreviejan, urte osoan zehar, hondartzatik 100 metrora. Tel.: 943 77 03 85.

• Sancho el Sabion, Donostian, ikasleentzako etxea alokagai. Tel.: 943 21 65 63.

• Ikasleentzako pisua alokatzen da San Andresen. Tel.: 943 79 22 19 (22:00etatik aurrera).

• Pisua alokatzen da San Andresen. Tel.: 943 79 28 63.

• Apartamentua alokagai Nojan. Bi logela eta hondartzatik gertu. Ekainean eta uztailean, 15 egunez edo hilabetez. Tel.: 943 17 60 10.

• Sei lagunentzat apartamentua alokagai Torreviejan, ekainean eta uztailean, 15 egunez edo hilabetez. Tel.: 943 17 60 10.

• Hiru logelatako etxebizitza alokagai, San Andresen. Tel.: 943 79 13 54.

• Uztailean, Donostian, 3 logela, 6 ohe, 2 bainugela eta egongela dituen pisua alokagai, 120.000 pezetan. Telf.: 943 21 65 63/610 94 35 86.

## ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

## GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

## LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

## LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

## IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

## MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

## DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

## HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



# 943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otorora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Press ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

• Pisua errentan emateko, Zarautzen. Hirigunean eta berriztua. Tel.: 943 79 88 30.

• Donostiako Gros auzoan apartamentua alokagai, uztail eta abuztuan, hamabost egunez edo hilabetez. Hondartzatik oso gertu. Tel.: 943 79 82 47/943 71 96 29 (lan ordutan).

• Ezkarain apartamentua errentan emateko. Igerilekuarekin. Tel.: 943 77 12 70.

• Gela bat alokagai, ikasleentzako, Arrasate erdi-erdian. Tel.: 943 79 45 87 (eguerdi aldean deitu).

• Apartamentua alokagai Laredon, hondartzatik oso gertu, 15-30 egunerako. Tel.: 943 79 52 80.

• Arrasate Ibilbidean pisua alokagai. Tel.: 630 16 05 06.

### 4. Errentan hartzeko

• Etxebizitza bat behar dugu 5 mutillek. Tel.: 943 88 69 75. Orkatz.

• Pisu bat alokatuko gurek Ara maion edo Aretxabaletan. Tel.: 629 92 48 82.

• Unibertsitateko hiru ikaslek pisua alokatuko lukete. Tel.: 943 18 74 75.

• Lau ikasle pisu bila. Tel.: 943 60 41 99.

• Irailetik aurrera etxe bat alokatuko nuke, 3 edo 4 gelarekin. Tel.: 943 83 34 47.

• Unibertsitateko ikasle talde batek lau lagunentzako etxebizitza behar du Arrasaten edo Eskoriatzan. Tel.: 94365 45 22 (Aiala) edo 943 18 74 97 (Gorane).

### 5. Etxeak osatzeko

• Pertsona bat behar da etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 77 15 67.

• Aretxabaletako etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Tel.: 943 71 99 94. Marta, lanorduetan.

• Neskak behar dira Leioan pisua osatzeko. Unibertsitateko gertu. Tel.: 606 33 80 51.

## GARAJEAK

### 9. Errentan emateko

• Erdialdean dagoen garaje itxia alokagai. Tel.: 943 79 01 84. Edurne.

• Garajea eta trastelekua alokagai

Uarkapen. Tel.: 943 79 01 84.

## LOKALAK/ORUBEAK

### 12. Saldu

• Kalealdea 4, behean, 100 m<sup>2</sup>ko lokala salgai. Tel.: 943 79 42 65.

### 14. Errentan emateko

• Akademia batek eskolak emateko bi gela alokatzen ditu. Tel.: 943 79 18 70.

• Elikagaietan aritzeko lokala alokagai. Tel.: 943 79 96 39 (astegunetan).

## LANA

### 17. Eskaintza

• Neska prest edozein lanerako. Tel.: 943 79 78 36.

• Neska prest umeak zaintzeko, arratsaldetan, Tel.: 943 71 53 74.

• Neska bat prest arratsaldean lan egiteko. 16:30etik aurrera, umeak zaindu edo etxea garbitzeko. Tel.: 646 41 01 15.

• Astelehenetik ostiralera bitartean, garbiketa lanak egiteko prest nago. Tel.: 943 77 06 74.

• Neska arduradunak umeak zainduko lituzke, arratsaldean. Tel.: 943 71 53 74.

• Neska prest jatetxetan garbiketa lanak egiteko. Tel.: 600 600 531.

### 18. Eskaerak

• Etxeko lanak egiteko emakumea behar da. Tel.: 943 79 19 64. 22:15etik aurrera.

• Pertsona bat behar da Office eta Visual Basic-en aditua, informatika dendan lan egiteko. Tel.: 943 76 91 27.

• Esperientzia duen pertsona behar da ile apaindegian aritzeko, udan. Tel.: 943 79 22 59 (lan orduetan).

• Taberna lan egiteko pertsona bat behar da. Lana irailetik aurrera izango da. Tel.: 943 79 61 64.

• Esperientziadun jostuna behar da, jantzigintza eta konponketak egiteko. Tel.: 943 79 89 72.

• Ostalaritzan aritzeko tabernaria eta sukaldari laguntzailea behar dira. Tel.: 943 79 20 50.

• Ilea-paintzailea behar da. Tel.: 943



77 12 70 / 943 79 94 39.

• Zerbitzaria behar da jatetxean bana-tu eta mahaia zerbitzeko. Tel.: 943 78 34 79, Felix.

• Jatetxean lan egiteko zerbitzaria behar da. Tel.: 945 44 50 86.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

• Ingeles filologiazko ikasle batek ingelesezko eskolak emango lituzke, bai Eskoriatzan eta baita Mondragoen ere. Oporretan ere bai. Tel.: 943 71 47 85.

• Uztailan ingelesezko eskolak emango nituzke. Tel.: 943 79 18 70.

• Esperientzia duen irakasleak Lehen Hezkuntzako eskolak ematen ditu, ingelesa barne. Tel.: 943 79 85 71 (21:30etik aurrera).

### 21. Eskaerak

• DBHko 4. mailako eskolak emateko pertsona bat behar da. 943 79 57 31 (18:00etatik aurrera).

• Filosofia lizentziatua behar da UBI-ko ikasle bati eskola partikularrak emateko. Tel.: 943 79 33 91.

## MOTORRA

### 23. Saldu

• Motorra salgai. Scooter, 12.000 km. 100.000 pta. Tel.: 943 79 69 64. Xabi.

• Peugeot 205, SS - V salgai.

60.000 pta. Tel.: 943 79 49 69.

• Opel Kadet GSI autoa salgai, 2-0, 130 zaldi. Tel.: 943 79 16 43.

• Fiat Tipo 1.600 VI-K, salgai. 5 ate, itxigailu zentralizatua, leiho igogailu elektrikoa eta aire girotua. Oso egoera onean. Tel.: 670 26 46 96.

• Opel Calibra 2.0i 16v. NA - AK. Tel.: 619 42 48 72.

• Ford Escort XR3i, SS-AG, salgai, prezio onean. Tel.: 943 79 35 64/943 79 26 44.

• Volkswagen Golf 2-GTi salgai. Tel.: 943 79 48 49.

• Renault 19 turbo-diesel salgai. Tel.: 943 79 24 51 (21:00etatik aurrera, Maria Jesus).

## DENETARIK

### 26. Saldu

• "Roller" markako karabana salgai. Tel.: 947 79 46 84.

• "Conver 13" markako karro-denda salgai. Tel.: 656 77 85 79.

• Kanpinerako gasezko hozkailua eta sukaldea salgai. Egoera onean eta merke. Tel. 943 79 64 18. 20:00etatik aurrera.

• Karro-denda bat salgai. Oso egoera onean eta merke. Sukaldea oparitzen da. Tel.: 943 79 56 06.

• 2/4 pertsonarendako kanpin denda berri-berria salgai (15 egunetan erabilia). 2 logela, hall-a eta toldoa dauka. Tel.: 943 74 05 37.

• 150 litroko akuariuma saldu nahi dut, osagarri guztiekin. 943 79 86 38.

• Egongelarako armairua eta bi ohe mahaitxoekin salgai. Egoera onean. Tel.: 943 79 53 12.

• Hiru lagunentzako hidromasajea salgai, prezio onean. Tel.: 606 75 50 22.

• Windsurfeko taula salgai, Rumba modelo eta osagai guztiak. Tel.: 943 79 23 47.

• Txakurrendako atoa salgai. Tel.: 943 79 82 24 (gauetz).

• Billar amerikarra salgai. Egoera onean eta prezio negoziagarrian. Tel.: 630 38 91 22 (Felix).

• Drahtarrar arrazako bi hilabete-ko txakurra saltzen dugu. Pedigriduna. Tel.: 948 69 40 44, Yolanda edo Jose.

• Kanitxe kume zuriak salgai. Tel.: 943 76 57 16.

• Playstation kotsola salgai, 10 jokurekin. 10.000 pta. Tel.: 943 79 94 55 (Mikel).

• Hiru txakur salgai: Spaniela, 6 hilabete, arra; Puentea, emea, urte eta erdi; eta Setterra, emea, 11 hilabete. Tel.: 943 76 37 70.

### 29. Eman

• Haurrentzako sehaska bat eman nahi nuke bere osagarri guztiekin. Tel.: 943 79 86 38.

• Katu siamesdarra oparitzen dut, 2 urtekoa, ezin atenditzeagatik. Oso maitakorra da. Tel.: 943 76 39 95.

### 30. Hartu

• Telebista zaharren bat bota nahi izanez gero, gustura hartuko genu-

ke. Tel.: 616 53 36 76.

### 31. Galdu

• Ekainaren 2an, ostiralean, San Andresen urrezko medaloia galdu nuen. L hizkia eta data bat idatzita ditu. Balore sentimentala duenez, itzultzea eskertuko nuke. Tel.: 943 71 27 00/943 79 53 48.

• Perla zuridun eta txibista formadun lotura duen lepokoa galdu nuen ostiralean, Seber Altuben. Aurkitzen duenak saria jasoko du. Tel.: 943 79 78 54.

### 33. Bestelakoak

• Ziklomotor zahar baten fitxa teknikoa behar dut. Tel.: 943 77 08 02. Joxean.

### 32. Aurkitu

• Urrezko pultsera aurkitu dut Munarreko parkean, zurea bada deitu 943 79 90 94 telefonora.

• San Andresen urrezko kate bat aurkitu dut. Tel.: 943 79 04 28.

• Amaia Antzoki inguruan 34 neurriko jaka bakeroa aurkitu nuen. Tel.: 943 79 17 88.

• Sanjoan bezperan giltza joku bat agertu zen Totem dendan. Jabea bertatik pasa dadila.

### 36. Deialdiak

• Kokatutako karabana antzeko bat errentan hartu nahiko nuke abuztuaren bi astez. Tel.: 943 77 01 31.



# URONDO

## Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76





**M**ondragoen bazegoen Jaguar's izeneko talde bat. 60. hamarkadaren hasieran sortu zen, Jose Ramon Zugasti eta Eloi Leibarren eskutik eta 80. hamarkada inguruan desagertu. Denbora tarte horretan, hainbat pertsoniak osatutako hiru Jaguar's egon ziren.

Argazkiko hau azkenengo taldea da. 1970. hamarkadaren erdialdean atera zen, Udalan. Orduko taldekideak, berriz, honakoak dira: ezkerretik hasita, Manuel Unamuno, Juanjo Orobengoa, Richar Iñarra, Jose Ramon Zugasti, Jose Luis Landa eta Eloi Leibar.

Bost bat urte geroago desagertu zen taldea behin betiko.

Iraun zuen arte, baina, han eta hemen ibili ziren jotzen; orduko dantzalekuek urte osoan zehar, eguena, zapatu eta domeketan; Elefante Blanco eta Idoia bezalakoetan jotzen zuten, esaterako. Horrez gain, erromerietan ere aritzen ziren.

Jaguar's guztietatik, eratu zen bigarrena izan zen ezagunena, Sagastak, Barandiaranek, Mondragonek, Zugastik eta Leibarrek osatutako taldea, hain zuzen ere.

*Berriemailea: Eloi Leibar*



<http://agila.opel.es> 902 11 99 00

ja, ja

aja!

opel agila berria hasieran ja ja, gero aja!

Hasiera baten, Agila berriak berezi samarra eman lezake, baina hiriko auto adimendun baten aurrean gaude. Auto txikia da, baina kanpotik; izan ere, Agila berriaren barrua zabala da oso, edozertarako tokia dauka. Atzeko eserleku benetan erosoak luraren mailan tolesta daitezke, eta 1.250 litroko tokia egin. Baina, horretaz gain, jarlekuen alturak primerako ikuspen eta maniobralitatea eskaintzen dute. Zenbat eta hobeto ezagutu Agila berria, orduan eta gehiago errepikatuko duzu "aja!".

Zatuz zeure kontzesionariara eta deskubritu.

**OPEL**

**TALLERES OLA**

**TAKOLO AUTOAK, S.L.**

Olabarrena auzoa z/g  
Tel.: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47 • BERGARA

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN  
Araba etorbidea 3 (Eskatu pabilioia) • Tel.: 943 79 05 86



# Etxeko konponketak

## Aroztegia

Armairuak, hormako armairuak, atak, oholtzak, leihoak etab.



Garagartza auzoa, 5-2.  
(Bixiena Baseria) • ARRASATE  
Tel.: 943 77 02 43  
Mugikorra: 608 77 40 83

**ARROZTEGIA  
LAGUN**

Markoalde, 5-7 • BERGARA  
Tel.: 943 76 08 10

## Igeltzaritza



*Izcue Irurzun*

Igeltzaritza orokorra  
Etxeen berrikuntzak  
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

## Leihoak



**ARGÍ PLASTIK**

PVC, aluminio termiko  
eta poliuretanozko  
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola, 1- Pab.  
Tel./ Faxa.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

## Elektrizitatea

**ARANZABAL**



**KOOP. E.**

Instalakuntza elektrikoak • Antena kolektiboak

Zerkaosteta, 15

Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

## Igeltsoak - Apaintzea

**Pako eskaiolak S.L.**

Markulete, 14

Tel.: 943 77 08 21

## Margoak

**APAIN**

**MARGO ETA APAINKETA**

Matiena, 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17



**RRASATE**

**Elektrizitatea**

Instalakuntza eta muntatze elektrikoak

**24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77**

Gipuzkoa etor., 37 • Tel.: 943 79 65 93

## Iturgintza

**Aretxabaleta**

Durana, 16 behea (Aretxabaleta)

Tel.: 943 79 17 53

**JOVI**

**10.000 KOLORETAKO MENUA**

Ferrerias, 36 behea • Tel.: 943 79 12 87

## Eraikuntzak

**Berecibar**

Santamaina, 34 • Tel.: 943 79 09 63

**AURI**

Loramendi 7, 2 behea  
Tel.: 943 77 08 88

**Iturgintza • Bainuak  
Gasa • Berogailuak**



**PERSIANAS CARPER**

Mota guztietako pertsianen  
salmenta, muntaketa  
eta konponketa

Eskuzko pertsiana eta elektrikoak

Anboto2. 1esk. Tel.: 943 79 67 43  
Mug.: 630 27 46 09

## Giltzak



• Zerrailagintza • Giltzen kopiak • Zapata eta aterkin konponketa • Artazi, laban eta abarren salmenta eta zorrozketa • Larruzko gauzak  
• Pantografo bidezko grabaketa

Eroski merkataritza zentroa, 1

Tel./Fax: 943 79 76 03



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea, 39 behea • Tel.: 943 77 01 85

**Txorrota**

Nafarroa etorbidea, 5 atzealdea  
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17

## Tapizeriak

**Konrado**

Aulkiak, besaulkiak, sofak,...

**Eskatu aurrekontua.**

Nafarroa etorbidea, 23 MI11

Tel.: 607 45 72 51 • Arrasate

Gida honetan azaldu nahi baduzu,  
deitu 943 71 23 91 telefonora



Zure ilusioak errealitate bihurtzen direnean

**IKKER**

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

**FAGOR**

SUKALDE ERAKUSKETA Urdala Plaza, z/g • ARRASATE • Tel.: 943 79 00 43

BAINU ERAKUSKETA Zarugalde kalea, 52 • ARRASATE • Tel.: 943 79 99 42